

**“EL PAÍS” EGUNKARIAK
FRANTZISKO AITA SANTUARI EGINDAKO
ALKARRIZKETA**

Donald Trump Estatu Batuetako presidente barriak bere kargua hartu eban egun berean, “El País” egunkariak Frantzisko Aita Santuari alkarrizketa luze bat egin eutson. Egunkariaren zuzendariak, Erroman bertan, dagoz eginda galderak. Nik neuk bertan agertzen diran galdera eta erantzun batzuk baino ez ditut jasoko jarraian.

Galdera. Benedicto XVI.ak, bere Aita Santutzako azken aurreko egunetan, hauxe esan eban: “Urak nahastuta indar bizian jais-tera doaz eta Jaungoikoa lotan dirudi”. Zuk ere sentitu dozu bakardade hori? Eliz hierarkia munduko arazo barri eta zaharren aurrean lotan ete dago?

Erantzuna. Nik neuk, Elizaren barruan, bildur gehiago deutset anestesiatuta dagozanei lotan dagozanei baino. Mundutarkeriaz anestesiatuta. Orduan plausta egiten daualako munduzalekerien aurrean. Hori da ni neu arduratzen nauana. Dana geldi eta bare-bare eta ordenan badago... Apostoluen Eginak edo San Pauloren kartak irakurtzen badozuz hor nabaritzen dira istiluak eta problema ugari non-nahi. Jendea mugitu egiten zan, bata besteagaz hartuemonetan ziharduan. Anestesiatuta dagoanak ez dauko inogaz hartuemonik. Gaur egun zenbat arrisku dagoan anestesiatuta bizitzeko! Baleiteke horixe izatea gaurko eliz artzainen arriskurik larriena, klerikalismoan jaustea. Hau da, ni hemen eta zuok hor! Zu jende ho-

rrren artzaina bazara eta jende horren arazoan ardurarik ez badozu, itxi atea eta jubilatuz zaitez!

G. Elizaren zati bat anestesiatuta al dago, ba?

E. Danok daukagu tentazino hori! Erreza da anestesiatuta egotea. Mundutar espirituaren anestesia da arriskutsuena. Jesusek bere Azken-Afarian Apostoluen alde egindako otoi-tzean ez deitso eskatzen Zeruko Aitari: gorde dagiela bosgarren agindua, inor ez hiltzeko, edo zazpigarren agindua, lapurretan ez egiteko. Ez dau holakorik eskatzen. Munduaren erpatatik askatzeko eskatzen deitso Aita Jaungoikoari. Mundutar espirituak anesthesiatu egiten daulako. Eta horrela, eliz artzainak funtzionario bihurtzen dira. Horixe da klerikalismoa, Elizak euki leiken gaixotasunik txarrena, larriena.

G. Benedikto XVI.ak, bere Aitasantutzaren azken aldian eukitako arazoak zuri Castelgandolfon emon eutsun kutxa zurian gordeta egozan. Zer aurkitu zenduan barruan?

E. Elizako bizitzaren normaltasuna: santuak eta pekatariak, ganorazkoak eta ustelduak. Danetarikoak egozan bertan. Itaunketak jasandako pertsonak eta garbi gelditu ziranak... Erromako Kurian santuak ere badagoz. Eta hori klaru autortu behar da. Erraz egiten da berba Kuriaren usteltasunaren ganean. Hori ere badago. Baina baita santu asko ere. Hainbat pertsonak emon dabe anonimotasunean euren bizitza guztia Elizaren eta besteen zerbitzuan. Hor barruan santuak eta pekatariak aurkitzen dira. Egun horretan, ni neu gehien harritu ninduana Benedikto XVI.aren memoria izan zan. Kutxa zuria emon eustanean esandako berbak gogoan ditut: "Hortxe daukazuz aktak. Hortxe dagoz pertsona guztien epaiketak ere. Urliak hau, sandiak hori eta berendiak ha". Dana buruz, aparteko memoria dauko. Eta oraindino ederto kontserbatzen dau. Elefantearen memoria dau. Harritzekoa, benetan!

G. Zeintzuk dira zure ardura nagusienak bai Elizari buruz eta bai gizarteari buruz?

E. Elizari dagokionez, egon daitela jendearengandik beti gertu. Hur ez dagoan Eliza ez da Eliza, ONG bat baino ez litzake izango, edo ondo organizatutako erakunde bat ongintza eta benefizentzia egiteko. Baina Elizak Kristoren presentzia lagun hurkoarengan ikusi eta bizi behar dau. Mateoren Ebanjelioan, 25. kapituluan, klaru agertzen da zelan izango garan azken auzian epaituak: “gose nintzan, arrotz nintzan, biluzik nengoan, gaixorik, giltzapean...” Beti premina gorrian dagozanen ondoan... Hori ONG edo halako benefizentzia baino askotaz gehiago da.

Gizarteari buruz gehien arduratzen nauana, gerrak dira. Hirugarren munduko gerran, zatika izanda ere, sartuta gagoz. Gerra nuklearraren arriskua hortxe dago. Arazo honeek ez dira lagunekin kartetan esaten diran bromak. Baita benetan larritzen nau, munduko aberastasun guztiaren %80a gutxi batzuen eskuetan egoteak ere. Gaurko sistema ekonomikoaren bihotzean ez dago besterik dirua baino. Eta ez gizona, ez emakumea, ez pertsona. Holan doa sortuz gizartean baztertze kultura barri bildurgarria.

G. Eliztar tradizionalentzat, edozelako aldaketa saldukeria besterik ez da. Beste muturrekoentzat, oster, ez da behar besteko aurrerapenik egiten. Zure ustez, dana egoan Kristautasunaren oinarrian idatzita. Kasu horretan, normaltasunaren iraultza da zu egiten ari zarana?

E. Ni neu saiatzen naz Ebanjelioak dinoana bizitzen. Ez dakit lortuko dodan, pekataria nazalako. Elizaren egiazko protagonistak ez dira teologoak, ez abadeak, ez erlijiosoak, ez goetzainak, santuak baino. Honexeez dira Ebanjelioa praktikan bizi dabenak. Santuen bizitzatik ataratzen dan teologia bai dala ederrena. Jakina, Elizaren kide diranez, bai teologoak eta



bai artzainak, beharrezkoak ditugu. Baina benetakoenak, Ebanjelioa egiaz bizi izan dabenak, santuak doguz. Beti Ebanjelioaren bihotzera jo behar da. Zuk “iraultza” berbea erabili izan dozu. Horixe da santuen “iraultza”. Nik ez dot ezelango iraultzarik egiten. Ni neu ez naz santua. Saiatzen naz Ebanjelioa aurrera eroaten. Baina ez ondo, zenbat laprastada egiten dodan egunero...

G. Ez dozu uste, hainbat eliztar seme galduaren anaia zaharren sindromeaz jota bizi dirala. Nahiz eta eurak izan jarraitzen dabenak Elizaren barruan aginduak betetzen, eurekin ia-ia ez zarako gogoratzen, bai, ostera, Elizatik ihes egin dabenekin. Zuk egindako bidaia baten, alemaniar kazetari batek galdetu eutsun zergaitik ez dozula berba egiten inoiz “klase mediari” buruz, hau

da, aginduak bete, zergak ordaindu eta abar zintzo kunplituz gizartea eta Eliza aurrera daroan jendeaz?

E. Bi galdera dagoz hemen: bata, seme galduaren anai nagusiaren sindromea eta bestea alemaniar kazetariarena. Lehenengoari dagokionez, Elizan trankil eta eroso bizi direnak, Ebanjelioaren proposamenekin urduri jartzen direnak edozelako aldaketak egiteko. Niri asko gustatzen jat samariar onaren parabolak agertzen dan ostatuko jaubea. Honek ondo ekian samariarrak kontatuta zer jaso jakon lepoan eroian gizon errukarriari. Ostalaria harri eta zur geldituko zan samariarraren jokabideaz. Holakorik ez eban bere bizitzan ikusi. Baina Ebanjelioaren barrikuntza eskandalagarria danez, harridura sortzen dau. Paulo Apostoluak, Kurutzearen eskandalua eta Jaungoiko Semearen gizon egitearen eskandalua aipatzen ditu. Ebanjelioaren muina aldi guztietan eskandalagarria da. Eskandalu positiboei buruz ari naz. Badagoz eskandalu txarrak ere. Esaterako, umeen kontrako eskandaluak Jesusek garbi salatzen dituanak. Seme nagusiaren sindromea, Elizan lasai eta aise sentitzen diranen sindromea dogu. Badaki zer egin eta zer ez egin. Dana dauko klaru. Ez daitela inor agertu hemen gauza barriak erakusten. Hau da lehenengo galderaren erantzuna.

Bigarrenari dagokionez, ez neuntson orduan erantzun alemaniar kazetariari. Baina badozu arrazoi pixka bat eta erantzungo deusut, esan neuntson. Ni beti nago “klase mediaren” ganean berba egiten, nahiz eta berba hori ez erabili. Joseph Maleguk, novelista frantsesak, santutasunaren “klase media” esaera darabil. Nik beti ditut gogoan seme-alabak hazten dabean gurasoak, aitite-amamak geriatrikora eroan barik familiar zaintzen dabezanak, euren lana duintasunez bizi, besteen alde on egiten dabena, gaixoak zaindu, hildakoei lur emon eta abar. Honexek osotzen dabe santutasunaren “klase media” deritxona. Euron santutasuna sekulakoa da. Maleguk

honetan bihozkada ederra izan eban. Intuizio jeniala! Bere “Augustine” deritxon nobelan, alkarrizketan, ateo batek dinto: “Baina, zuk benetan sinisten dozu, Kristo Jaungoikoa da-la?” Nobelako protagonistaren erantzuna: “Hori ez da niretzako arazoa, niretzako arazoa izango zan, Jaungoikoa gizon ez egitea”. Horixe da santutasunaren “klase media”.

G. Urte honeetan zehar, zure bidaietan hunkituta ikusi zaitugu eta baita hainbat jende zure berbekin bihotza ikututa ere. Esaterako, hiru bidaia honeetan: Lampedusan, ea negar egin genduan euren seme-alabak galdu ebezan gurasoekin galdetu zenduan; Cerdeñan, munduko finantza-sistema salatu zenduan eta Filipinasen umeen esplotazioari buruz. Munduko gobernuak, zer ari dira egiten?

E. Bakotxak ahal dauana edo nahi daua egiten dau. Inmigrante bakotxa problema larria dogu. Euren herrietatik iheska datoz gosez hiltzen bizi diralako edo gerran dagozelako. Guzti horreek esplotatuta bizi dira. Afrika dogu esplotazio horren ezaugarri eta sinbolo. Arazoa ez da bakarrik pare bat hilabetetan ostatu emotea. Arazoa da, abegi onez hartu eta gizarteratzea, integratzea. Derrigorrezkoa da onartzea, bestela itsasoan itoko dira. Mediterraneo kanposantu bihurtuz doa. Arazo honek benetan arduratu behar gaitu. Italiak eta Greziak etsenplu ederra emoten dabe, nahizta Italiaren kasuan, lur ikararen ondorio oso larriak jasan. Inmigranteak integratzen, Suedia dogu munduko nazio eredugarriena. Suediak bederatzi miloi biztanle ditu. Eta horreetatik, 890.000 bizilagun etorkinen seme-alabak. Esaterako, Suediako kanpo-arazoetako ministroa, andre gazte bat da. Beraren ama suediarra eta aita Gabonekoa. Kanpotarrak integratzea beharrezkoa dogu. Bestela getoak sortzen dira. Ez dot inor errudun egiten, baina hor dagoz getoak. Esaterako, Zambentemgo aireportuan gertatutako triskantza belgiarrak egin eben, atzerritarrak osoturiko auzunekoak. Bertakotzea oso

preminazkoa dogu. Zein da gaur egun Suediako arazo nagusia? Inondik inora ez da gauzea suediarrentzat, atzerritarrek onartzea edo ez onartzea, kanpotarrak zelan integratu baino. Zer gehiago egin geinke etorri daiten jendea eta bertakotzeko?. Izugarria benetan! Egia esan, hau ez da niretzat gauza barria. Hainbat urugaiar, txiletar, argentinar, diktadura militarren erruz, errefuxiatu ziran Suedian. Bertan aurkitu eben, babes politikoa. Hara heldu eta berehalaxe paperak eta bizitzeko baimena konpondu, osasun laguntza eta pisu bat lortu. Bigarren astean bertako hizkuntza ikasteko klaseak eta lantxo bat topatu aurrera egiteko. Hemen Italian ere, arazo horretan, San Egidio eredugarri dogu. Nigaz Lesbetik etorri ziran errefuxiatuekin Vatikanoko arduratu zan. Bigarren egunean ikastetxera hasi ziran joaten. Gurasoak han eta hemen okupatu. Lehenengo arazoa larriena, zelan salbatu etorkinak, gero abegi onez hartu eta hirugarren pausoa gizartean integratu. Hori da egin behar doguna.

G. Ia orain 50 urte, Paulo VI.a eta Atenagoras Constantino-plako Patriarka, Lur Santuan, Israelen alkartu eta besarkatu ziran. Badira esaten dabena, zu ezagutzeko Paulo VI.a ezagutu behar dala. Oso ulertu gabeko Aita Santua izan genduan bera. Zu ere hain ulertu gabea sentitzen zara?.

E. Ez, ez. Ni neure pekatuakatik askotaz ulertu gabekoagoa behar neuke izan. Ulertu gabeko martiria Paulo VI.a dogu. Nire “Evangelii gaudium”, Pablo VI.aren “Evangelii nuntiandi” gaurkotzea baino ez da izan. Paulo VI.ak aurrea hartu eutson historiari. Askok sufritu eban, asko! Martiri handi bat dogu berri. Hainbat gauza ezin izan ebazan bete. Gizon argia zanez, baekian ezin ebala gauza asko egin eta asko sufritu eban. Eta sufrimendu hori Jaungoikoari eskaini eutson. Zer izan zan Pablo VI.ak egin ebana? Erein eta erein! Eta gero historian zehar hainbat frutu emon dabe. Esaterako, bai “Evangelii gaudium” eta bai “Aparecidako Agiria”, “Evangelii nuntziandiren” emoi-

tzak ditugu. Vatikanoko II. Kontziloaren geroztik agiririk ederrena “Evangelii nuntziandi” dogu. Ez dau inondik inora bere gaurkotasuna galdu. Ni neu ez naz sentitu ulertu gabeko Aita Santu. Klase guztietako pertsonekin lagundurik sentitzen naz. Bai, egia da, badagoz batzuk ez dagozanak nigaz konforme. Baten bat nigaz ados ez dagolako, txarto sentitzen banaz, diktadore hazia dodala barnean erakutsiko neuke. Eskubide osoa dauke nigaz konforme ez egoteko. Baina beti ere alkarrizketarako prest egonaz. Ez harria jaurti eta eskua gorde. Hori ez! Horretarako inork ere ez dauko eskubiderik. Hori ez da gizona izatea. Hori ez da giza portaera jatorra, delikuentzia baino. Danok daukagu eztabaidatzeko eskubidea. Gehiago eztabaidatuko bagendu hobeto. Eztabaidak asko alkartzen gaitue. Odol oneko eztabaidak eta ez gezur baltzekoak, kalumniazkoak.

G. 25 urte daroazuz telebista ikusi barik eta, entzun dodanez, ez zara kazetarien debotoa. Baina Vatikanoko komunikabideak goitik behera aldatu dira, dikasterio bat oso bihurtzea lortu dabe gainera. Horrenbesteko garrantzia daukee Aita Santuarentzat komunikabideak? Arriskuan ikusten dozuz prentsa-askatasuna eta adierazpen-askatasuna? Sare sozialak jarri leikee arriskuan pertsonaren askatasuna?

E. Nik ez dot ikusten telebistarik, Jaungoikoak momentu baten horixe eskatu eustala sentitu nebalako baino. Karmengo Amaren egun baten, 1990. uztailaren 16an, egin neban promesa hori. Telebista ez ikusteak ez deust kendu komunikatzeko aukera. Telebista ez ikustea, erabaki pertsonal bat izan zan bakarrik. Komunikazioa jainkozko jarduera dogu. Jaungoikoa gugaz hartuemonetan daukagu beti. Gure bizitzan zehar murgilduta agertzen jaku Jaungoikoa. Gizona izateraino komunikatu da gugaz Jaungoikoa. Teologia katolikoa ezin da ulertu Jaungoikoa gugandik aparte, gugaz hartuemonik gabe. Edertasun hau kontuan eukirik, baita esan behar da, komunikabideak badituela euren arriskuak ere. Bildurra



deutset etikaz jarduten ez danean. Badagoz komunikatzeko era batzuk gure arteko hartuemonak gizatiarragoak izaten laguntzen ez dabena. Komunikazio “birtuala” ganoraz erabiltzen ez bada, hau da, komunikatzeko beste era gizatiarragoak baztertzen baditu, arrisku itzela dago. Adibide sinple bat. Afaltzen dago familia bat eta ez dabe alkarrekin berbarik egiten, bata telebistari begira dagoalako, bestea telefono mugikorrarekin kanpokoekin hizketan edo mezuak bidaltzen edo hartzen eta abar Derrigorrezkoa da familian eta gizartean beste modu batera alkarrekin komunikatzea ere. Komunikatzea jaungoikozko ekintza dogu. Jaungoikoa gizabidez

komunikatzen jaku. Vatikanoko komunikabideak funtzionalki ondo aritzeko sortu da dikasterio barri bat. Hori ez da izan komunikatzea, gaur egun, inportantea dalako. Hori eginda pertsonentzat alkarrekin komunikatzea ezinbestekoa dalako, Jaungoikoarentzat ere esentziala dalako baino.

G. Dakizunez, Espainian oraindino laizismoaren eta erljiorearen arteko eztabaidak bizi-bizirik dihardue. Laizismoak ez dau Eliza bazterrera jaurtiko?

E. Alkarrizketa! Horixe da nazio guztiei emoten deusedan aholkua. Mesedez, alkarrizketa, anaia bezala, edo gitxienez behintzat, pertsona zibilizatuak bezala. Ez alkar kondenatu alkarrizketa egin baino lehen. Alkarrizketa egin ondoren, beno... Gaur egun, alkarrizketa barik ezin da politikarik egin. Honek balio dau Espainiarrentzat eta beste guztientzat. Aholku bat eskatzen badeustazu espainiarrentzat, alkarrizketari eutsi. Arazorik badago, ekin alkarrizketari.

G. Aita Santu izateaz pozik aurkitzen zarala, dirudi.

E. Jaungoikoa ona da eta ez deust umore ona kendu.

A. Olea